

12. ERANSKINA

7.4 Kokatu esaldi bakoitzean bat (ere, ba-karrik, arren, izan ezik, ez ezik)

- | | |
|---|--|
| — Aitona zaharra denak etorri ziran. | — Umeek badakite horrenbeste. |
| — Uda osoan behin egin digu euria. | — Etorri banintz gauzak ez ziren hobetuko. |
| — Lana kirola da. | — Ahaleginetan ibili ginen alferrik. |
| — Guk geuk ez genekien hori. | — Telebistan beste komunikabide guztietan agertu da. |
| — Matematikas beste guztiak gainditu ditut. | — Euskaraz hitzegin behar duzue. |
| — Liga Kopa ere irabazi genuen. | — Edurra egin zuen han ginen gu. |
| — Horrelakoak gurean ikusten dira. | — Txuleta arkumea ere jan zuen. |
| — Euskadi irratian euskaraz mintzatzen da. | |
| — Zuk beste guztiek ezagutu ninduten. | |

Imanol Unzuurrungaza

ZENTRU INGELESA

Hizkuntz eskolak azken urteotan iritsi dira ikasleek beren ikaskuntzan eskolaz kanpo dituzten beharrak aintzakotzat hartzera. Ondorioz, eskolako sarreran edo harrera-gelatan edo hutsik dagoen zenbait lekutan askotan jarri ohi dituzte material batzu: norberak erabiltzeko baliabideak, liburutegi txikiren bat, magnetofonoa eta, zenbaitetan, eskuartean dirua dutenek edo arriskatuak bideoa edo konputagailu txikiren bat ere bai. Berrikuntza horren pean askotan dago uste bat, oso zehatza ez baldin bada ere, ikasleak goizago etortzeko eta klaseen ondoren eskolan geratzeko gogoia izango dutela, alegia, ingelesa entzun eta ikasiz.

Uste hori zehatza ez dela diot, eskola askok nonbait pentsatzen bait du, ikasleei baliabideak emanez gero, hauen beharrei erantzungo zaiela eta administrazioaren eta ikasleen gogoberoak ekarriko duela ikastegiaren arrakasta oso-oso. Baina ulertzen ote dute horrelako eskola horiek ikasleen beharrak zein eta nolakoak diren? Eskuartean jartzen dizkieten baliabideek erantzuten al diete benetan ikasleen beharrei? Nolako helburu eta jarrerarekin joaten dira ikasleak horrelako tokietara? Ba al dakite, besterik gabe, horrelako medioak nola erabili behar diren? Laguntza edo prestakuntzarik ez ote dute behar? Zein izan behar luke eskolaren barnean horrelako zentru baten helburua eta nolakoak horren antolamenduaren oinarri filosofikoak?

Galdera horietako batzuri erantzun nahiko nieke artikulu honetan, horrelako zentruetan izan dudak eskarmentuaren laguntzaz, eta azaldu nola aldatu diren horrelako tokien funtzio, helburu eta baliabideak eskualdeko ikasleen premien arabera.

• Donostiako esperientzia

Tamalez, ikastetxerik gehienek ezin diete beren ikasleei hornidura xume-xume bat besterik eskaini; baina zenbaitetan, eta haxe da Donostiako International House-ren kasua, oso zabal da horretarako eman den lekua eta eskolaren barruan entitate berezia izatera heldu da, irakasteko teknika berriak bilatzeko aukera ematen duelarik. Eta ikasteko material berriak sor daitezke, Eskola Nagusiaren ohizko egituren esparruan inolaz ere eman ezin zitezkeenak.

• Historia

1982ko urrian hasi zen lanean Donostian Zentru Ingelesa eskolako beste zentruetatik aparte, bulego handi batzu eskuratu zirenean, ikasleek leku zabalagoa izan zezaten ikasteko. Hasiera

batean eskuarteko materialak onak ziren, baina oinarrizkoak: besteak beste, mailakatutako irakurgaien liburutegia, goi mailetako ikasleentzat «Penguin» liburutegia, norberak erabiltzeko zenbait material, ikasαιοetarako bideoa, bost grabadore, zinta magnetofonikoen bilduma bat eta filminen proiektagailua.

Zentruak arrakasta ikaragarria izan zuen berehala. Ikasleek nahiago izaten zuten liburutegi hori besteak baino, hauek beti beteta egoten bait ziren eta ez zuten patxada-girorik eskaintzen. Zentruan ez zen ingelesa bakarrik ikasten, ikasleak nahi zuen lana egin bait zezakeen, eskolako nahiz unibertsitatekoa. Bereziki estimatzen zuten kolegioko lanetarako edo azterketarako behar zuten bakoitzean laguntza eske Zentruko irakasle-zuzendariarengana joateko aukera.

Hainbesteko arrakastaren aurrean ez zen zaila izan ondorengo inbertsioa zuritzea, eta 1984ean beste bideo bat eskuratu zuen bere kamara eta guzti, norberak erabiltzeko entzutezko materialaren bi banku, beste hamar grabadore eta bi konputagailu txiki. Bestalde, Zentrua handitu egin zen, aldamean zeuden bulego batzu eskuratuz. Zentrua ez zen jadanik Eskola Nagusiaren eranskina; berez zuen garrantzia. Ikasleak ere berehala jabetu ziren horretaz: hizkuntz irakaskuntza ohizkoaren alternatiba atsegin eta berria zela.

• **Ikasleak Zentruaz baliatzeko moduari lehen oharra**

Zentrua hasiera-hasieratik izan zen ikasleek eskolaz kanpo ingelesarekin zer egiten zuten eta ikastera zergatik etortzen ziren ikusteko leku ezin hobea. Hori ikustea oso feedback baliagarria izan zen Eskola Nagusiaren jardueran zenbait alderdi hobetzeko.

Lehenbizitik ikusi ziren gauzetarik bat izan zen Zentrua etortzen ziren ikasleek itzulpen asko egiten zutela, beren ikasketetarako behar zituztelako (ikasleak berak behar zuen eskola edo unibertsitateko testuaren itzulpena), Bilboko Hizkuntz Eskola Ofizialeko azterketetan egiten diren itzulpenen antzekoak edota ordaindutakoak, esate baterako, ingelesetik euskara E.T.B.rentzat. Hori ikusirik, berehala sortu zen kontsultarako liburutegia: ingeles/espainierako hiztegia, ingelesezko hiztegi espezialdua, zientzi eta ekonomi hiztegiak... Edozein ikasleren eskuetan ez zeuden material garestiak, alegia.

Honek berak eskolaren politika indartu egin zuen eta itzulpen-lanak sartu ziren ikastaroetan eta garrantzi handia eman zitzaien hemen inguruko azterketei.

• **Zentru Soziala**

Beste gauza bat ere ikusi zen: ikasleek azkar aski egin zuten Zentrua beren bilera-leku. Arrazoi asko zeuden horretarako eta lehenengo ikastaroaren bukaeran egindako inkesta batek honako ondorio hauek eman zituen:

1. Zentruak giro atsegina eskaintzen zien ikasleei klaseen aurretiko edo ondorengo harremanetarako. Zentrua nahiago zuten ikasgelako edo eskolako itxaron-gelako giro formal eta hertsia goa baino.

Ikasleek aitortu zuten berrikeretara joaten zirela, etxeko lanak elkarrekin egitera edo tutoriarengana, ikasgelan nahi bezain argi geratu ez ziren puntuetan argibide eske.

2. Behe mailetako ikasleek asko estimatzen zuten goragoko ikasleekin biltzeko aukera, haiekin irakasleei, ikastaroei, eskolako ekintzei buruz mintzatzeko edota ikasle aurreratua goek beren hizkuntz maila eta jariatasuna eskuratzeko jasan izan zituzten zailtasunen berri jakiteko, maila hori iristeko zenbat denbora beharko zuten etab. jakin nahi izaten zuten. Horrela ikasleak lor dezake ikastaroen hasieran jenderik gehienak nahi izaten duen informazio *ez-ofiziala*.

3. Ikasle aurreratuek esan zuten bere abildadeak hurrengo mailetakoei parekatzeko parada zutela eta honela jabetzekoa zenbat aurreratu zuten (ala ez zuten).

4. Zentruak beren irakasleekin edo beste berezko hiztunekin lasai eta informalki egoteko modua ematen zien ikasleei eta horrela ingelesa berezko testuinguru benetakoan erabiltzeko. Batzutan adiskide berriak egiten ziren (eta, ondorioz, ingelesa erabiltzeko kontestu berriak), klasearen mugak gainditzen zirelarik. Hau, bestalde, oso probetxugarria zen irakasleentzat, leku berri batera etorriak zirelarik, lagunak egin nahi bait zituzten. Feedback berria ere jaso zezaketen berehala eta horrek asko balio zuen bere irakaskuntz metodoak eta ikasleenganako eraginkortasuna neurtzeko.

5. Ikasleek berentzat hartzen dute eskola eta honekin identifikatzen dira; hau ezinezko litzateke klaseetara joate hutsarekin.

6. Diapositibak lagun ematen diren hitzaldiak eta hileroko bideo-emanaldiak atsedentzat hartzen ziren eta Zentruan egin eta besterekin harremanak edukitzeko aukera ematen zuten.

• Ahozko adierazpena eta hasierako usteen ustela

Askok pentsatuko luke honelako Zentruetan ez dela ia landuko ahozko adierazpena. Bere-kasa ari den ikasleak entzumena, irakurmena eta idazmena landuko ditu, behar bezalako mate-riala eta norberak erabiltzekoa baldin badu eskuartean. Baina, nola landu mintzamena, hiz-kuntz trebetasunetan nagusia, irakaskuntza formalik gabe?

Hasiera batean erantzuna erraza zen: ingelesez egitea bakarrik zen zilegi. Denak egongo zi-ren arau honen menpean, hasiberriak ezik, eta horrela segurua zuten ikasleek ingelesa entzun eta erabili beharra. Egia esan, genuen fedea indartu egin zuen Zentrua lehenengo aldiz etorri ziren ikasleak ia denak ados eta arau horren alde egoteak.

Baina teori mailan ona ematen zuena oso txarra gertatu zen praktikan. Izan ere, berehala ohartu ginen jende asko ez zela Zentrua hurbiltzen arau hori zela medio. Beste batzu eseri eta isil-isilik aritzen ziren ikasten edo, are txarrago, tabernetara joaten ziren edo eskaileretan ge-ratzen, honela bai bait zuten sartu aurretik esan beharrekoak gaztelaniaz esaterik.

Beraz, azkar aski ohartu ginen saihestu nahi genuen hura bera egin genuela ustegabea, eta Zentruari ere, klaseari bezala, antzeko urduritasunez begiratzen zitzaioela. Zorionez, araua kentzearekin batera, joera sanoagoa sortu zen eta ikasleek aurkitu zuten ingelesez hitzegin eta hizkuntza hori lantzeko testuinguru berezkoagoa. Hauek ziren testuingu horren zenbait osaga-ri:

1. Etxeko lanak eta Zentruko lezio eta materialen eztabaidak sortzen duen diskurtsoa. As-kotan ingeles hizkuntzari buruz arituko ziren eta ez zuten ingelesa komunikatzeko erabiliko, baina horrek berak ere ingelesezko hitz eta esaldi asko errepikatzea eramaten ditu.

2. Zuzendariarekin, irakaslearekin edo idazkariarekin hitzegitea. Hemen sartzen dira in-formazioa eskatzea, aholkuak edo sarrera-irteerako hizketaldi laburrak.

3. Zentrua inguratzen diren benetako hiztunekin hitzegitea.

4. Materialari eta konputagailuari buruzko eztabaida. Arlo honetan, gaiak eta materialak direnak direlako, errazago da ingelesez aritzea espainieraz baino. Konputagailuari dagokio-nean, eskuliburuak eta programak ingelesez egoteaz aparte, makina beraren (Basic) hizkuntza ingelesa da.

Bene-benetan aipatzekoa zera da: hiru urteren buruan ia-ia lortu dugula hasierako helbu-rua. Hori horrela gertatu da Zentruan dauden bitartean ingelesez aritu diren ikasleen motiba-zioak sakonak direlako eta horien gogoberoak ohitura hori bera lortzera beste asko eramaten dituelako. Beraz, ikasleren batek gaurregun bere gogoberotasunean bakarrik dagoela uste badu, izango ditu Zentruan bere antzeko gogoia duten lagunak eta lagunduko diote bere jarrera hori azaldu eta gauzatzen.

• Ikasleei irakatsi Zentruaz nola baliatu

Ingelesez bakarrik hitzegiteko araua kentzearekin batera Zentruko arduradunek ikasi zu-ten lehen gauza inportantea: ikasleei egindako edozein presio Zentruaz baliatzearen aurka zihoala eta asko mugatzen zuela ikasleak eskura zezakeen onura. Ondorioz, guk irakasleok eta administrazioak honelako zentruetan ezar daitekeela pentsa dezakegun edozein ideia edo arau saihestea erabaki zen eta, alderantziz, ikasleen beharren arabera moldatu eta bilakatzen uztea; ez zaio askotan, inoiz gertatu baldin bada, eskola komertzial bati honelako helbururik ezarri.

Egia esan, Zentruak zabalik daramatzen hiru urteotan berek nahi duten hura ikastera bul-tzatu ditu ikasleak, beren marxan, beren garaian eta beren kabuz. Era bakar batean izan dugu eskua ikaskuntz prozesu horretan: ikasleari irakasten nola egokitu behar dituen eta ematen zaizkion material eta baliabideak irakasle bihurtzeko. Lehen esan dugun bezala, honelako zen-truek funtziona dezaten ez da aski nahi izate hutsa. Ikasle asko teknologia erabiltzeak (magne-tofoiak eta konputagailuak eta) bildurtu egiten dituen ez gero, beldur hori uxatzen irakatsi behar zaie; beste batzuk, beti irakaslearen mendean erabat egotera jarrita daudenez, ikasle in-dependentek izatera nola iritsi ikasi behar dute. Eta ia denek izango dute abantaila hizkuntza errazago ikasteko balioko dieten teoria eta tekniketara ohitzea.

Ikasleen hezkuntzarako instrukzio informalera jo dugu, bakoitzarekin lan eginez, klase au-rreko hitzalditxoetan eta informazio-orri, poster, foileto eta bideo-zinten bitartez.

• Ikasteko laguntza

Zenbaitetan ikaskuntza laguntzaduna eman izan da, pentsatuz eskuartean genituen baliabide malguen bitartez asko lagun ziezaiokeela Eskola Nagusiari. Honela egin genuen hori:

1. Norbere kasako ikastaroak egiten lagundu ikasleei, horretarako orientazioa emanez. Honela, askotan beren klaseko ikaskideen mailara iritsi ziren.

2. Azterketetan beti huts egiten zutenei eta ikasgelan aurreratzen ez zutenei azken aukera emanez. Hauei ere orientazioak eta norbere kasa erabiltzeko materialek lagundu egin zieten berriro martxa hartzen.

3. Cambridge eta Hizkuntz Eskola Ofizialeko azterketarako ikastaro bereziak, ikaslearen komenentziara molda zitezkeen elkarriketa mailakatu eta guzti.

Laguntza duen beste ikaskuntza mota bat, aipatzea merezi duena, ikasleek berek galdetu zieten emandakoa da. Ikasgelan herabe eta hitz gutxiko diren etzat da bereziki probetxugarria laguntza hau, ez bait dira maiz aski irakasleari galderak egiten ausartzen.

• Ikastaro bereziak

Zentruak egindako lan berritzaile aipagarrienetakoak ikastaro bereziak izan dira. Goi mailetako ikasle askok benetako testuingurua eskatzen zuen beren ingeleza erabili eta mantentzeko. Horietaiko asko bizpahiru urtez goi mailetan egona zen, bere azterketak gaindituak zituen, errepika eta ulermen-ariketekin aspertuta zegoen eta motibazioa galtzen ari zen azkar aski.

Soluzioren bat eman nahiean, Zentrua pelikula eta literaturari buruzko ikastaroak ematen hasi zen 1984eko urrian. Ikastaro hauei hizkuntz lezio formal batekin ematen zaie hasiera, ikastarorako behar diren hiztegia eta esaldiak azalduz; baina gero ez da inoiz hizkuntzarik aipatzen eta irakasleak zein ikasleak ikastaroetako gaiez bakarrik arduratzen dira. Hastea besterik ez dugu egin, baina zenbait ikastaro burutu da Alfred Hitchcock-en pelikulei eta Shakespeareri buruzkoa. Hala berean, beste ikastaro berezi batzu ere egin ditugu, hala nola, *Ingelesa telefonoz, Ahoskera*; eta klase batean bezala bestean, badirudi posibilitate oso zabalak daudela. Gure berehalako asmoetan askotariko ikastaroak eskaintzea dago, ingelesez egiten den lurraldeetara lehenengo aldiz doazenezat bideo, historia eta klaseak prestatzeraino ere iritsi nahi genukeelarik. Ikasleen aldetik erantzuna oso ona izan da eta ikaragarri motibatzailea heltzen omen dira, trebetasun asko lantzen dute eta azkar bereganatzen hiztegi espezialdu zabal askia.

• Zentru Ingelesa gaur

Artikulu honetako azken atalean Zentru Ingelesak gaur dituen baliabideak eta eskuarteak aztertu nahi nituzke eta ikasleen beharretara nola egokitu diren azaldu.

a) Kideak

1985ean zehar ikasleak ohartu dira Zentru honetan badutela ohizko hizkuntz klasearen alternatiba bat. Hain izan da baikorra hirian izan dugun harrera, ezen Eskola Nagusiko ikasleek aparte —hauei hileroko kuotak ematen bait die Zentrua etortzeko eskubidea— beharrezko gertatu bait zaigu ikaskuntza formalean parte hartu nahi ez eta Zentruaren alderdi batez baliatu nahi dutenezat gurekiko loturak sortzea. Kide berri hauek arrazoi asko izaten dituzte Zentruan izena emateko.

1. Zenbaitzu goi mailetako ikasle dira, klasean aurrerapen handirik egiten ez dutela konturatzaren direnak eta ikaskuntzan beti gramatikari bueltaka eta alferrikako eztabaidan aritzera iritsi direnak.

2. Beste batzu lanorduak direla edo beste zenbait gorabehera dela eta, ez dute ordutegi finkoan ematen diren ikastaroetara joaterik eta, ondorioz, primeran datorkie Zentruaren malgutasa, hara joan bait daitezke ikastera astirik dezatenean.

3. Orientazio independentea du zenbaitek gustuko eta horren bila etortzen dira, hau bakarrik bait da, beraien aburuz, klasearen mugei eta irakaslearen aurrean egoteko lotsari irtenbide ematen dien jardura.

4. Batzu ikasten oso motelak direlako eta horrela beren lagunentzat galga direla ikusiz etorri dira. Jakina da, badira alderantzizkoak ere (klaseko martxa motelegia dela eta berekasa askoz azkarrago ikasiko luketela uste dutenak).

5. Azkenik, badira filmategiko edo liburutegiko kide izan nahi dutenak ere, ingelesarekiko interesak beste ezertara bultzatzen ez dituelarik.

Malgutasun haxe da, hain zuzen, Zentruak duen xarmaren alderdi bat.

b) Liburutegiak

Estimazio handia izan du «Penguin» liburutegiak, baina ikasleek batz bestei bat aste behar izaten dituzte liburu bat irakurtzeko. Irakurgai mailakatuen liburutegiak sorpresa handia eman digu; besteak beste, gizonentzat zein emakumeentzat libururik gustagarrienak ez direla ekintza askodun istorioak edota ondo inprimatutako liburuak, eleberri erromantiko eta maila apaleko liburuak baizik.

Ikasleei lagundu egiten zaie, aukera egiterakoan liburuaren azalean, beharko duen denbora, gutxi gorabehera eta aurretikako irakurleen iritziak azalduz.

c) Bideoa

Hilean bi pelikula ematen ditugu ikasleentzat, baina norberak erabiltzeko ere badugu bilduma polita. Aipatzekoa da ikasleek bideozintaren aukera ez dutela hizkuntzaren zailtasunaren arbera egiten, baizik eta beraren ontasunari eta kalitateari egiten dietela men.

d) Entzunaldiak

Haxe da ikasleak berekasa aurrerapenik handiena egin ditzakeen alorra. Klasean erabili duten testuliburuko elkarrizketak berriro entzuteko aukera izaten dute; eta badira Ameriketako ingelesezko sekzio bereziak ere, irrati ingeleseko umorezko emanaldiak, abestiak, ahoskera, doinua eta dialektuak eta, agian estimaziorik handiena dutenak, kasetetan grabaturiko liburuak.

e) Norberak erabiltzeko materiala

Entzutezko materiala da hau ere eta ikasleari material zailagoetara heltzeko bidea ematen dio, aldi berean helburu altuagoak ezarritz. Saiorik gehienak 15 bat minututakoak dira. Zentruak badu norberak erabiltzeko ariketa gramatikalen bilduma ederra ere, eta alor hau zabal-tzekotan gaude.

f) Konputagailuak

Xarma berezia du ikaslerik gehienentzat tresna teknologiko honek, eta asko baliatzen dira gramatikako programez eta testuinguruetako testuez. Baina makina honen eremua mugatua da derrigorrez, ikasleek ez bait dute denbora luzean pantailaren aurrean egon nahi izaten eta ez zaizkie gustatzen irakasle pasiboarekiko harremanak.

g) Orientazioa

Asko zabaldu dizkit begiak lan honek. Ikasleek askotan egin dizkidate ikasgelan egiteak lotsatzen zituen galdera xumeak eta horretatik ohartu naiz zein gutxi ulertzen den ikasgelan esplikatzeko gaitasuna.

Ikasleek, era berean, orientaziora jotzen dute itzulpenetako zailtasunak argitzeko, lagun ingelesei gutunak idazteko, lana eskatzeko inprimakiak betetzeko edo hitzegiteko, besterik gabe.

h) Diapositiba-emanaldiak

Hilero egiten dira bidaiei buruzko hitzaldiak. Horrela ingelesa patxadaz eta informalki erabiltzeko aukera izaten da.

i) Egunkariak

Astean behin erosten dira eta erregulariki irakurtzen dituzte Zentruko kideek. Kalitatezko egunkariak harrera hobea dute sentsazionalistek baino.

j) Jokoak

Berezko giroa da Zentrukoa hizkuntz jokotarako eta beste era askotako jolasetarako, xakea etab. Jokalariek behar hainbat argibide eta hiztegi daukate beren esku.

k) Iragarki-taula mugikorrak

Taula hauetaz baliatuz, aretoak behar berezietarako banatzerik badugu eta aldi berean erakusketak egiteko, informazioa emateko, posterrak ezartzeko eta balio dute.

* * *

Azkenik, esan nahi nuke ikasgelaz kanpo gure ikasleen beharrak era askotakoak eta oso konplexuak direla eta zentru orok aztertu beharko dituela, arrakastarik izan nahi badu. Baina hauxe ikusten da argi eta garbi: ikasleak independenteagoak eta beren ikaskuntzaren ardura-dun egiteak garestitu egiten dituela eskolako kostuak eta ingelesez egiten den lurraldearen batera joatea eskatzen duela. Zentru Ingelesa edo antzekoak izango dira, beharbada, geroan hizkuntzak ikasteko leku egokiak.

Paul Meniss
Itzultzailea: Boni Urkizu